

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

JULEN LEKUONA

Euskal idazlea, abeslaria eta musikaria izan zen. Txikitatik bertso zaharretarako eta kanturako tradizioa jaso zuen amonaren bidez. Hala eta guztiz ere, kantuan Oiartzungo Schola Cantorum haurren abesbatzan hasi zen, iganderoko mezan. Seminarioan ikasi zuen, eta bertan sortu zituen bere kantu ezagunetako batzuk. Seminarioko urteak amaitu, eta apaiz egin zenean, Zumarragako Aizpurutxo izeneko auzora bidali zuten.

1963an egin zuen jendaurreko lehen saioa Donostiako Antigua auzoko parrokian. Ondorengo bi urteetan, Lourdes Iriondorekin, Mikel Laboarekin eta abarrekin ibili zen kantari; gero, *Ez Dok Amairu* taldean sartu zen. Garai hartan makina bat emanaldi egin zituen Lekuonak, gehienetan taldearekin eta noiz edo noiz berak bakarrik.

1965ean, Caracasen, *Discos Gudari* izenaz argitaratu zizkieten lehen bi disko txikiak, Lekuonak berak jakin gabe, eta haserretu egin zen. Bertan daude bere kantu ezagunenetako batzuk. Adibidez, *Herri bat hiltzen* eta *Eliza pobrea*. Bigarren hori taldearen jaialdi batean abestu zuenean, zalaparta handia sortu zen.

1966an, lehen disko ofiziala grabatu zuen Bilbon. Poliziak ale guztiak bereganatu zituen, *Hiltzaile bat bezala* deituriko kantua letratu zela eta. Gainera, hilabete batzuk geroago, Azkoitiko epailearen aurrean deklaratu behar izan zuen. Zigor gisa, Guardia Zibilak gitarra kendu zion, eta ez zuen berreskuratu, 1975. urtean Franco hil zen arte.

1972an apaiz izateari utzi zion, eta, *Ez Dok Amairu* taldea desegin ondoren, bakarka jarraitu zuen kantuan; baina handik gutxira, Xabier Leterekin eta Antton Valverderek elkartu, eta bertso zaharrez eta berriz osaturiko emanaldiak eskaintzen hasi zen.

1974an, Kontxita Rekalderek ezkondu zen. Azpeitian jarri ziren bizitzen eta bi seme-alaba izan zituzten; ondoren, Irunera joan ziren, Lekuonak aurrezki-kutxa batean lana aurkitu zuelako.

Gainera, euskarazko kantagintza modernoa sustatu nahian, atzerriko kantu ezagun ugari ekarri zituen euskarara anaiarekin batera, eta orduko kantari gazteen artean banatu; besteak beste, Jose Antonio Villarri eman zizkieten batzuk. Gerora, kantaldiak emateari utzi zion, baina ez guztiz. Esate baterako, 1998an, Ondarroan *Badok hamalau* izeneko emanaldia egin zuen; 1999an Oiartzunen, *Ganbelu zaharra* izeneko eta 2000n Kanbon, Mixel Labegerieren omenezko ekitaldi batean parte hartu zuen.

Antzerkiaren arloa ere landu zuen; baina, nahiz eta antzerkiak gustuko zituen, ez zen taula gainean aritu. Horren ordez, hainbat obra zuzendu zituen, baita testu batzuk euskaratu ere.

2003ko uztailaren 19an hil zen, zangoetako tronbosiak jota.

Wikipedia. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Testuaren arabera, non hasi zen Lekuona kantuan?**
 - a) Amonarekin, bere etxean.
 - b) Oiarzungo koru batean.
 - c) Seminarioko elizan.
2. **Non eman zuen bakarkako lehen saioa?**
 - a) Aizpurutxon.
 - b) Antiguako elizan.
 - c) Seminarioan.
3. **Ez *Dok Amairu* taldearen garaian, Lekuonak nola egiten zituen emanaldiak?**
 - a) *Ez Dok Amairu* taldearekin soilik.
 - b) Bakarka.
 - c) Taldearekin eta bakarka.
4. **Zer dio testuak jaialdi bati buruz?**
 - a) *Eliza pobrea* abestiak iskanbila sortu zuela.
 - b) *Herri bat hiltzen* eta *Eliza pobrea* abestiak ezagun egin zirela.
 - c) *Ez Dok Amairu* taldearekin bigarren aldiz abestu zuela.
5. **Guardia Zibilek zergatik kendu zioten gitarra Lekuonari?**
 - a) Kantu baten letragatik.
 - b) Azkoitiko epaitegian abestu zuelako.
 - c) *Hiltzaile bat bezala* kantuaz jabetu zelako.
6. **Zergatik joan ziren Irunera bizitzera?**
 - a) Kontxita hangoa zelako.
 - b) Lana zela eta.
 - c) Seme-alabengatik.
7. **Zer egin zuten Lekuona anaiek euskal kantagintza bultzatzeko?**
 - a) Protesta-kantak sortu.
 - b) Kantak Jose Antonio Villarri saldu.
 - c) Kantuak itzuli eta abeslariari eman.
8. **Antzerkiari dagokionez, zer egin zuen Lekuonak?**
 - a) Obrak zuzendu eta antzeztu.
 - b) Obrak sortu.
 - c) Obrak zuzendu eta itzuli.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A OÑATIKO UDAL-KIROLDEGIA**Ohiko ordutegia**

Astelehenetik ostiralera 07:30etik 21:30era; larunbatean 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:30era, eta igande eta jaiegunetan 09:00etatik 13:30era.

Udako ordutegia

Astelehenetik igandera 09:00etatik 20:00etara. Abuztuan, astelehenetan kiroldegia itxi egiten da, besteak beste, garbiketak eta konponketak egiteko.

Abonuak

Hainbat abonua mota daude; adibidez, ikasle eta jubilatuak deskontuak dituzte prezioan. Gainera, familiar abonatzeko aukera ere badago; guraso eta seme-alabek batera ordainduz gero, ordaindu beharreko tasa merkeagoa izango da, baita familia ugaria izanez gero ere. Bestalde, langabetuek ez dute dirurik ordaindu behar urteko abonua egiteko, betiere eskatutako dokumentuak erakutsiz gero.

Abonatuentzako zerbitzuak

Kiroldegira sartzeko eta instalazioak erabiltzeko aukera ematen du. Horrez gainera, abonatuaz zateak lehentasuna ematen du kiroldegian eskaintzen diren ikastaroetan izena emateko edo jolaslekuak alokatzeko.

<oinati.eu>. Egokitua.

B GETXOKO UDAL-KIROLDEGIA**Ordutegia**

Astelehenetik igandera 08:00etatik 21:30era.

Abonuak

Urtebeterako, lauhileko baterako edo bi lauhilekorako alta emateko aukera dago. Adibidez, apirilean eginez gero, urte osoko zenbatekoaren % 80 ordaindu beharko da eta urrian eginez gero, % 40 ordaindu beharko da.

Bestalde, abonatuak ez direnek igerilekuak erabiltzeko 10 edo 30 aldiz sartzeko aukera ematen duten bonuak eros ditzakete.

Zerbitzuak

Kiroldegian, igerilekuak, teniseko pistak, frontoia, erabilera anitzeko kantxak eta gimnasioa erabiltzeko aukera dago.

Gainera, irailtik ekainera, arratsalde 3 eta 12 urte bitarteko haurrei eskainitako txokoa dago, Txikigunea. Hainbat ekintza egin daitezke bertan, besteak beste, antzerkia, eskulanak eta ingelesa.

Bestalde, kirolari lotutako mediku-zerbitzua ere badago, kirolariei azterketak egin eta kirolari buruzko aholkuak jasotzeko.

<getxo.net>. Egokitua.

C URRETXUKO UDAL-KIROLDEGIA**Ohiko ordutegia**

Lanegunetan, 08:00etatik 20:00etara; larunbatetan 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; igandeetan, 09:00etatik 14:00etara.

Udako ordutegia

Astelehenetik larunbatera, 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Igandeetan eta abuztuaren 8tik 24ra kiroldegia itxita.

Udan, Pagoetako kanpoko igerilekuak 11:00etatik 20:00ak bitartean irekita egongo dira egunero.

Abonuak

Urte osorako txartela egin daiteke soilik. Hala, txartela urtarilean eginda edo abuztuan eginda diru kopuru berbera ordaindu beharko da. Bestela, eguneko sarrerak erosi beharko dira.

Zerbitzuak

Kiroldegiko igerilekuak, kantxak, teniseko pistak, gimnasioa eta aldagelak erabiltzeko aukera eskaintzen da. Gainera, urtean zehar, kirolari lotutako ikastaroak egiten dira, esaterako, igeriketakoak.

<urretxu.eu>. Egokitua.

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

9.	Abonua berdin kostatzen da urte osoan zehar.
10.	Mantentze-lanak egiteko, kiroldegia itxi egiten dute.
11.	Kiroldegi hau beste kiroldegiak baino lehenago ixten dute astegunetan.
12.	Kirola egiteko zerbitzuak eskaintzeaz gain, beste mota bateko zerbitzuak ere eskaintzen dituzte.
13.	Herritar batzuen beharretara egokitzeko, ordaintzeko orduan, erraztasunak ematen dituzte.
14.	Abonatua izan gabe ere, hainbat alditan erabiltzeko txartelak saltzen dituzte.
15.	Nahiz eta kiroldegia itxita egon, udan kirola egiteko beste gune bat ere badago.
16.	Abonuaren prezioa hilabete kopuruaren araberakoa da.
17.	Eskaintzen diren ikastaroetan parte hartzeko, abonatuak abantaila izango dute.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19, 20...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Galdera bat sobera dago.

ANE MUGIRA

Denboraldi bikaina egin ondoren, Ohorezko Mailan arituko da Gernika-Bizkaia saskibaloit taldea datorren denboraldian. Ane Mugira da taldeko kapitaina, eta, igoera lortuta, oso garai gozoa bizi duela onartu du.

18

Lehenengo denboraldian dena izaten da berria: jendea, maila... Bigarren denboraldian maila mantentzea lehenengoan baino zailagoa dela esaten dute askok. Guk hirugarren urtean, hasieratik erakutsi genuen besteak baino gorago geundela. Izan ere, partida guztiak irabazten hasi ginen, eta, jardunaldi batean izan ezik, denboraldi osoan lehen postuan egon gara. Giltza zein den? Taldean daukagun giro ona.

19

Lurreratu gabe, oraindik; laino baten gainean bezala. Lortu duguna barneratu gabe gaude oraindik. Ezusteko handia izan da. Lan asko egin dugu, eta sakrifizioak beti izaten du bere saria.

20

Indartsua, langilea eta taldekideak elkarri laguntzeko prest dituen da. Talde ona gara, eta bakoitzak berea eman diogu proiektuari. Fitxatutako jokalariekin ere asmatu egin dugu, denak bikain egokitu dira eta.

21

Bai. Halako herri txiki batean, kalean igarri egiten da giroa. Ezohiko zerbait izan da: jendea kalean gu zoriontzen, komunikabideak deika... Oso garai onak dira, eta gozaten ari gara.

22

Bai, bai, gainezka egoten zen. Partidarik onenak etxean jokatu ditugu, giroa desberdina izaten delako: gertukoak bertatik begira direla, eserlekuak beteta... Horrela errazagoa da ondo jokatzeko. Partida asko erabakitzen dira zaleei esker, eta asko zor diegu. Etxeko jokalaria asko dituelako lortu du taldeak halako berotasuna.

23

Ikaragarria eta sinestezina. Ez genuen espero, inondik inora. Xehetasun txikiek eta defentsak erabaki dute dena.

24

Gogoratu ere ez naiz egiten markagailuan zenbatean geratu ginen. 30 segundo falta zirela, taldekideak negarrez kantxaratu ziren, puntuetan tarte nahikoa geneukalako. Aulkian zeudenak ere negarrez hasi ziren, eta poz-pezik sumatzen genituen gernikarrak.

25

Oso gogorra. Hor dago Galdakaoren adibidea: aurreko denboraldian igo ziren, eta ezin izan diote eutsi gorengo mailari. Argi daukat sufritu beharko dugula. Lan asko egin beharko dugu, eta sailkapeneko behealdean egongo gara. Baina lanak emango dizkiegu; horixe izango da gure helburu bakarra.

**JUARISTI, Olaia: Berria, 2014ko maiatzaren 9a.
Egokitua.**

3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

- A. Zure ustez, nolako taldea da Gernika-Bizkaia?
- B. Zuen partidetan *Maloste* kiroldegia betetzea ohikoa zela entzun dut, egia al da?
- C. Zer sentitu zenuen azken partidako azken segundoko txirrina entzun zenuenean?
- D. Horrelako lorpena eskuratu eta gero, herritarrak gustura egongo dira, ezta?
- E. Zure ustez, nolakoa izango da datorren denboraldia konplexuagoa den Ohorezko Mailan?
- F. Nola konpontzen zarete taldekideak?
- G. Mailaz igotzea lortu ondoren, nola definituko zenuke taldeak egin duen denboraldia?
- H. Bi denboraldiz Bigarren Mailan aritu ondoren, hirugarrenean, mailaz igotzea lortu duzue. Zein izan da hori lortzeko sekretua?
- I. Azken denboraldian mailaz igotzea lortu eta gero, nola dago Gernika-Bizkaia saskibaloiko taldea?

■ **Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:**

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak								

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Atzo udaletxera joan zinen paper batzuk eskatzera. Ordua baino lehenago itxi zuten. Etxera itzuli zinen, zurea egin gabe. Gaur harrerako langilearengana joan zara kexatzeko asmoz.

Harrerako langileak inprimakia eman dizu kexa jartzeko. Azal ezazu zer gertatu zitzazu, zer kalte sortu zizun eta eskatu konponbidea.

2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zure lankide baten mezua jaso duzu. Haurdun zaude eta laster zure lana egiten hasiko da, eta zer egiten duzun jakin nahi du.

■ Hauxe da jaso duzun mezua:

The screenshot shows an email client window titled "Idatzi mezua". At the top, there are buttons for "Bidali", "Gorde", and "Baztertu". The "Norentzat:" field contains "Miren". Below it are links for "Gehitu Cc" and "Gehitu Bcc". The "Gaia:" field contains "Zure eginkizunak" with a link for "Erantsi fitxategia". A rich text toolbar is visible with various icons for text formatting and alignment. The email body contains the following text in green:

Kaixo, Miren:

Zer moduz zabilta? Azken egunak haurtxoa jaio aurretik, ez da hala?

Dakizunez, zu amatasun-bajan zauden bitartean, nik egin beharko dut zure lana. Horregatik, prestatzen joateko, eskertuko nizuke azkenaldian zertan zabiltzan kontaktzen badidazu. Zer lan egin beharko dut?

Eskerrik asko.

Esther

■ Erantzun iezaiozu lankideari.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «JULEN LEKUONA»

1.	B	2.	B	3.	C
4.	A	5.	A	6.	B
7.	C	8.	C		

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «KIROLDEGIAK»

9.	C	10.	A	11.	C
12.	B	13.	A	14.	B
15.	C	16.	B	17.	A

- **3. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.
- **Irakurgaia:** «ANE MUGIRA»

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak	H	I	A	D	B	G	C	E

Soberakoa	F
-----------	---